

2022ko URTARRILAREN 19ko OSOKO BILKURAKO AKTA.

Tokia: Berako Herriko Etxea.
Eguna: 2022-01-19.
Hasiera ordua: 19:30.
Bilkura mota: ohikoa, 1. deia.

BERTARATUAK:

EH BILDU

Estibaliz Pinacho Olaciregui
José Esteban Aguirre Zubieta
Maialen Chantre Irazoki
Patxi Castillo Graciarena

HERRIRAKO

José Antonio Oyarzabal Iribas
Raquel Quiroga Tapia
Nahuel Maximiliano Ibarburi Lompre

EZ EGOTE JUSTIFIKATUAK:

Germán Castillo Lazcanotegui

ALDEZ AURRETIK JUSTIFIKATU GABEKO EZ EGOTEAK:

Julen Errandonea Martin

ALKATEA (Bilkurako buru):

Aitor Elexpuru Egaña

IDAZKARIA: Miguel José Belarra Tellechea, ekintzaren akta jasotzen du.

EZTABAIDATUTAKO GAIK (behar bezala egindako deialdiaren Gai Zerrendan sartu zirenak):

1. AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONARPENA.

Alkateak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu zen aurreko bilkurako aktari (2021/12/22). Inork ez du azalpenik egin eta **aho batez** onartzen da akta.

Maialen Chantre sartu da bilerara.

2. UDAL PLANAREN ALDAKETA XEHATUA HIRIGINTZA ARAUETAN 43 BIS ARTIKULUA SARTZEKO. BEHIN BETIKO ONESPENA.

Ikusirik:

- Udalak 2021eko urriaren 20an egindako osoko bilkuran erabaki zuela hasierako onespena ematea Udal Planeko hirigintzako antolamendu xehakatuko determinazioen aldaketari, 43 bis artikulua sartzeko Hirigintza Arauetan (lurraren kontra dauden beheko solairuen aprobetxamendua). MUGARA ARQUITECTURA SL enpresak sustatu zuen

espedientea.

- Ez zela alegaziorik aurkeztu 2021eko azaroaren 11ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragarri ondoren hasitako jendaurreko erakustaldian.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 77.3 eta 72. artikuluekin bat etorritz,

aho batez (legez eskatutako gehiengo absolutuaren quoruma) ERABAKITZEN DA:

1. Behin betiko onespina ematea Udal Planeko hirigintzako antolamendu xehakatuak determinazioen aldaketari, 43 bis artikulua sartzeko Hirigintza Arauetan (lurraren kontra dauden beheko solairuen aprobetxamendua).

2. Behin betiko onspen hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

3. Erabaki hau jakinaraztea sustatzaileari.

4. Erabaki hau helaraztea Nafarroako Gobernuak Lurralde Antolamendu, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuari, onartutako agiriarekin eta emandako txosten teknikoekin batera, gehienez ere 10 eguneko epean.

3. PLANGINTZA ETA KUDEAKETARAKO HIRIGINTZA-HITZARMENAREN ONESPINA (3. POLIGONOKO 229. PARTZELA).

Ikusirik:

- Azaroaren 15eko 341/2021 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez hasierako onespina eman zitzaioala (prozedura hasteko) 3. poligonoko 229. partzelaren plangintza eta kudeaketarako hirigintza-hitzarmenaren proposamenari, Udaleko zerbitzu teknikoek idatzia. Proiektuaren xedea da partzelaren eginbeharrak atzeratzea (antolamenduz kanpo deklaratuak zatia eraistea) Udalak sistema orokorra egikaritzen duen unera arte, eta onartzea eraikina sistema orokorraren barruan dagoela, hots, "Txantel Erreka Lotura" sistema orokorraren barruan, eta mantentzeak ez dakarrela inolako kalte-ordain eskubiderik eraikina eraisteko. Hitzarmena sinatuko da XXXkin, AMAIANDONI SLUren izenean eta hura ordezkatuz arituko dena.

- Ez zela alegaziorik aurkeztu 2021eko azaroaren 25eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragarri ondoren hasitako jendaurreko erakustaldian.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 23., 24., 25. eta 26. artikuluekin bat etorritz,

aho batez ERABAKITZEN DA:

1. Behin betiko onespina ematea XXXkin, AMAIANDONI SLUren izenean eta hura ordezkatuz, sinatu beharreko 3. poligonoko 229. partzelaren plangintza eta kudeaketarako hirigintza-hitzarmenari.

2. Agintzea, sinatu ondoren, ale bat artxibatzeko hirigintza-hitzarmenaren udal

erregistroan eta artxiboan.

3. Erabaki hau jakinaraztea interesatuari.

4. UHOLDE ARRISKUAREN AURREAN JARDUTEKO BERAKO UDAL PLANA ONARTZEA.

Nafarroako uholde arriskuari aurre egiteko plan bereziak, 2018ko urtarrileko berrikuspenean, honako hau ezartzen du:

[...] 6. UHOLDEEI AURRE EGITEKO TOKIKO JARDUERA-PLANAK ETA BESTE PLAN BATZUK.

Foru Komunitateko uholdeengatiko larrialdi plan berezi honen eraginpeko udalerrri edo toki erakundeetako organo eskudunek uholdeen arriskuari aurre egiteko udal jarduketa planak prestatu eta onartu beharko dituzte, eta baliabide eta zerbitzu propioen antolamendua eta jardunak ezarriko dituzte, uholdeek eragindako larrialdiei aurre egiteko, beren lurralde-eremuaren barruan.

Plana egitea eta onartzea udaleko gobernu-organismoari dagokio. Nafarroako Foru Komunitateko Babes Zibileko Batzordeak homologatuko ditu [...].

[...] Onetsi aurretik, Nafarroako Gobernuko Babes Zibileko Zerbitzuaren aldeko txostena izan beharko du, Plan honetan egoki txertatzeko eta ondoren Nafarroako Babes Zibileko Batzordeak homologatzeko [...].

Ikusirik GAN-NIK enpresak idatzitako Berako uholde arriskuari aurre egiteko udal larrialdi-plana.

Kontuan izanik Nafarroako Gobernuko Babes Zibileko eta Larrialdietako Zerbitzuak dokumentuaren aldeko txostena egin duela.

Azaldutakoan oinarrituta, eta Nafarroako babes zibilari eta larrialdiei aurre egiteari buruzko 8/2005 Foru Legearen 14. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz,

aho batez ERABAKITZEN DA:

1. Berako uholde arriskuaren aurrean jarduteko udal plana onartzea.

2. Erabaki hau helaraztea, onetsitako planarekin batera, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuari, Nafarroako Babes Zibileko Batzordeak homologatzeko eskatuz.

5. ONARTZEA BERAKO UDALA ETA NAVARRA DE SUELO Y VIVIENDA SAREN ARTEKO ATXIKITZE-HITZARMENA, HIRIGINTZA ARLOAN LAGUNTZA TEKNIKOA EMATEA XEDE DUENA.

Alkateak azaldu du hitzarmenaren xedea dela, laburbilduz, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak Navarra de Suelo y Vivienda SA -NASUVINSA- sozietate publikoaren eskualdeko bulegoen sarearen bitartez hirigintzaren arloan ematen duen laguntza teknikoa eta ekonomikoa.

Hitzarmenaren edukia ikusirik eta gaia eztabaidatu ondoren:

aho batez ERABAKITZEN DA:

1. Hirigintza arloan laguntza teknikoa emateko Berako Udalaren eta NASUVINSaren arteko atxikipen-hitzarmenaren testua onartzea.
2. Erabaki hau jakinaraztea NASUVINSari.

6. NAFARROAKO MENDIALDEAREN TOKIKO GARAPEN PARTE-HARTZAILERAKO 2023-2027 ALDIRAKO ESTRATEGIARI ATXIKITZEA.

Nafarroako Landa Garapen Planaren baitako Nafarroako Mendialdeko 2023-2027 estrategia berria martxan jartzeko jardunbidea dela eta,

aho batez ERABAKITZEN DA:

1. Nafarroako Mendialdearen Tokiko Garapen Parte-hartzailerako Estrategian eskusiboki parte hartzea 2023-2027 aldirako. Estrategia hori 2022an idatziko da eta epealdi horretan berean, 2023-2027 aldian, kudeatuko du Cederna Garalur Elkarteak Tokiko Ekintza Taldeak, IFK G31372063 zenbakiduna, berariazko 8. helburuaren barnean (hau da, “Landa-eremuetan enplegua, hazkundera, gizarteratzea eta tokiko garapena sustatzea, bioekonomia eta basogintza jasangarria barne”), NPE-Nekazaritza Politika Erkideko Nafarroako Plan Estrategikoaren (NPEPE) 2023-2027 aldirako Tokiko Garapen Parte-hartzailearen (LEADER) neurriaren barnean.
2. Adieraztea udalbatzako kideek Cederna Garalur-ek (LGENFk %65arekin lagundutako finantziarioarekin) Nafarroako LGP 2014-2020 programaren barnean udalerrian egindako lan onaren berri dutela.
3. Udalak Cederna Garalurrekin parte hartzeko konpromisoa hartzen du “Nafarroako Mendialdearen 2023-2027 aldirako Tokiko Garapen Parte-hartzailerako estrategia” prestatzeko lanetan.
4. Udalak konpromisoa hartzen du Cederna Garalurreko Batzorde Betearazleak edo organo baliokideak ezartzen duen kuota ordaintzeko, funts publikoek estali ezin duten zatian taldearen funtzionamendu-kostua finantzatzeko.
5. Cederna Garalurrek 2023-2027 aldian deituko dituen bileretan parte hartzeko konpromisoa hartzen du udalak, bere lurraldearen Garapen Estrategia Parte-hartzailea kudeatzeari dagokionez.
6. Alkateari ahalmena ematea udal honen izenean Cederna Garalurrekin harpidetu ditzan akordio hau gauzatzearen ondoriozko agiri guztiak.
7. Erabaki hau jakinaraztea Cederna Garalurri.

7. BANDOAK ETA ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Honako bando eta Alkatetzaren ebazpen hauen jakinaren gainean geratu dira:

- Bandoak: B1/2022 zenbakiduna.

- Ebazpenak: 378/2021 zenbakiko Ebazpenetik (2021/12/22) 395/2021 zenbakiko Ebazpenera arte (2021/12/31) eta 1/2022 zenbakiko Ebazpenetik (2022/01/05) 5/2022 zenbakiko Ebazpenera arte (2022/01/14).

8. ESKAERAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEEN KONTROLA.

Ez dira izan.

Beste aztergairik izan gabe, 20:15ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

O.E. ALKATEA,
Aitor Elexpuru Egaña.

IDAZKARIA,
Miguel J. Belarra Tellechea.